



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki die erabilitako landare olioaren bilketa eta kudeaketa sektoreko enpresa batzuei**

Lehiakortasunaren kontrako jokabide posiblea, erabilitako landare olioaren bilketarako merkatuaren banaketarako ustezko akordioa izango litzateke

18 hilabeteko gehieneko epealdia ireki da orain, instrukziorako eta ebazpenerako

**BILBON, 2019ko martxoaren 15ean / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) zehapen espedientea ireki die Euskadiko landare olioaren bilketa eta kudeaketa sektoreko zenbait enpresari, euskal merkatuan lehiakortasunaren kontrako jardunbide posibleak direla eta.**

Informazio erreserbatu fasean jasotako informazioan oinarrituta, Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki du lehiakortasunaren kontrako jokabide posibleak direla eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoan erabilitako landare olioaren bilketarako merkatuaren banaketarako ustezko akordioa, hain zuzen ere.

Eskuetan duen informazioa dela eta, Lehiaren Euskal Agintaritzak uste du Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua arau haustea gertatu izanaren arrazoizko susmoak daudela.

Artikulu horrek kolusio jokabideak biltzen ditu, eta adierazten du debekatuta dagoela lehia askea kaltetzen edo kalte dezakeen edozein akordio, merkatuaren banaketari buruzkoak, batez ere.

Espedientea irekitzeak ez du ikerketaren azken emaitza baldintzatzen. Adierazten diren irekiera eta kalifikazioa eragiten duten arrazoizko susmoak behin behinekoak dira.

18 hilabeteko gehieneko epea irekitzen da, instrukziorako eta ebazpenerako, irekitze akordioa hartu den egunetik aurrera.

### **Lehiaren Euskal Agintaritza**

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta independentzia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.



Kartelen ikerketa da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketaren lehentasunetako bat, kontsumitzaileentzat eta merkatuen funtzionamendu egokian dituen ondorioen larritasun berezia dela eta. Horretarako, beste batzuen artean “Barkaberatasun Programa” dago. Programa horren bitartez, kartel bateko kide diren enpresak zigorra ordaintzetik salbuetsita geratzen dira edo zigorraren kopurua txikitzeko aukera dute, dagoeneko hasita dagoen ikerketari dagokionez balio erantsi esanguratsua duen informazioa ematen badute.